

LEHIAKETAREN OINARRIAK

Nork har dezake parte?

Beat Eroak ekimeneko saioetan parte hartu duten 11 eta 16 urte bitarteko gazteak. Talde bakoitzeko parte-hartzaile kopuruak ez du mugarik.

Zertan datza?

Proiektuaren helburua gazteei ahotsa ematea da: esateko dutena raparen bidez adierazteko espazio bat sortzea, bakoitzak bere hitzekin, bere estiloarekin eta bere erritmoan.

Bi fasetan garatuko da. Otsailean zehar, hitzen, errimen eta mezuen lanketa; martxoan, berriz, rap kantua sortu eta herri arteko lehiaketa aktibatuko da. Herri bakoitzak bere abestia sortuko du, eta horien artean irabazlea erabakiko da.

Epeak:

Letrak sortzeko saioak:

- Otsailak 9, URNIETA, 17:00etan
- Otsailak 10, ASTIGARRAGA, 17:00etan.
- Otsailak 19, ANDOAIN, 17:00etan
- Otsailak 20, LASARTE 17:00
- Otsailak 23, USURBIL 17:00
- Otsailak 24, HERNANI, 17:00etan

Grabazio tailerrak:

- Martxoak 2, URNIETA, 17:00etan
- Martxoak 5, ASTIGARRAGA, 17:00etan
- Martxoak 9, USURBIL, 17:00
- Martxoak 12, HERNANI, 17:00
- Martxoak 16, LASARTE 17:00
- Martxoak 26 ANDOAIN 17:00
- Bozkatzeko epea: apirilak 15-30
- Ekitaldia: Maiatzak 7, Astigarragan 18:00tan

Aurkeztu beharreko lanen ezaugarriak:

- Abestiak euskaraz izan beharko dira.
- Ez dira onartuko letra iraingarriak edota errespetu gabekoak.

Irabazlea erabakitzeke modua:

Puntu gehien dituen abestiak irabaziko du saria. Puntuak bi modutan zenbatuko dira:

Webgunearen bidez:

- Saioetan sortutako 6 abestiak iametza izena webgunean argitaratuko dira.
- Boto gehien jasotzen dituen abestiak 6 puntu izango ditu. Bigarrenak 5, hirugarrenak 4, laugarrenak 3, bosgarrenak 2 eta bozka gutxien jasotzen dituen abestiak puntu bakarra jasoko du.
- Bozkatzeke, korreo bat sartu beharko da. Korreo bakoitzeko bozka bakarra eman ahalko da.

Epaimahaiaren bidez:

- Herri bakoitzeko euskara teknikari batek kalifikatuko ditu abestiak 5, 4, 3, 2 eta puntu 1ekin (5 punturekin abestirik onena eta puntu 1ekin txarrena). Epailleek ezingo diote botorik eman beraien herriko abestiari.
- Webgunean jasotako botoen koefizientea, epaimahaiak emandako puntuetara gehituko da. Puntu gehien dituen abestiak irabaziko du saria.

Saria:

Lehiaketako saria bideoklip profesional bat grabatzea izango da. Saria jasotzeko taldea ekitaldian egon behar da (edo ordezkari bat).

